

Kaixo familia.

Dolores Ibarruri BHIk, ikastetxeko Guraso Elkartearekin batera, hurrengo egunetan garatuko duen Eskola Materiala Biltzeko Kanpainaren berri emiten dizugu.

Pentsa dezakezunez, elkartasun kanpaina honen helburua Valentziako Erkidegoko hainbat ikastetxe berreraikitzen laguntzea da, izan ere, joan den urriaren 29ko Danaren ondorioz dena galdu dute.

Bizkaiko pertsona talde batekin harremanetan gaude, hauek Valentziara eramango dute comboy bat, eta beraiek banatuko dute ikasmateriala premia handieneko ikastetxeetan.

Ez dugu gehiago luzatu nahi, azpimarratu nahi dugu DOLORES IBARRURI BHIk eta FAMILIOK herri kaltetuenetako hurrek lehenbailehen eskolaratzea nahi dugula eta horregaitik gure ekarpena egin nahi dugu, gure ikastetxean eskola materiala bilduz.

**LEKUA:** Dolores Ibarruri BHI

**EGUNAK:** Azaroaren 26tik, asteartea, azaroaren 29ra, ostirala, arte.

**ORDUTEGIA:** Eskola orduetan.

**IKASMATERIALA:** -

- Motxilak
- Kutxatilak
- Hainbat tamainatako koadernoak
- Kolore desberdinetako boligrafoak
- Zurezko, argizarizko eta plastidecorezko margoak
- Arkatzak
- Zorrozkailuak
- Borragomak
- Koloretako errotuladoreak
- Tipex
- Klipak
- Orriak
- Artaziak
- Grapagailuak eta grapak
- Errotuladoreak
- Post it
- Azaleztatzaileak
- Plastikoko paper-eramaileak
- Karperak
- Kartulinak

Berriro ere zuen laguntza eskatzen dizuegu elkartasun kanpaina berezi honetan. Era berean, garrantzitsua da adierazitako materiala zerrendatik ez irtetea; izan ere, jaso ondoren, material guztia modu orekatuan paketatuko da, ikastetxe bakoitzean materiala errezago entregatzeko.

**Mila esker bihotzez!**